



## BILBOKO ERRALDOIAK ETA BURUHANDIAK

<b>Ekitaldia</b>	Bilboko Erraldoiak eta Buruhandiak erakusketa aurkezpena
<b>Eguna</b>	Martitzena, Uztailak 10
<b>Lekua</b>	Euskal Museoa, Miguel de Unamuno plaza 4
<b>Ordua</b>	12:00
<b>Aurkezpena</b>	Josune Aristondo Akarregi anderea, Kulturako Diputatua eta Euskal Museoko Batzordearen Presidentea Itziar Urtasun anderea, Bilboko Udaleko Jaietako zinegotzia Iñaki López de Agileta jauna, Bilboko Udaleko Kultura zuzendaria Amaia Basterretxea anderea, Euskal Museoaren zuzendaria

Bilboko Euskal Museoak eta Bilboko Udaleko Jaietako Sailak Bilboko Erraldoi eta Buruhandiei buruzko aldi baterako erakusketa bat aurkezten dute. Iñaki Irigoien jauna eta Jon Gaminde jauna arduratu dira dokumentazio historikoaz, eta Bizkaiko Dantzarien Biltzarraren, Bizkaiko Gaiteroen eta Renferen lankidetzaren ere izan da.

Bilboko jaiak ezin izango lirateke ulertu Hiribilduko Erraldoi eta Buruhandien parte-hartzerik gabe. Kaletik egiten duten desfile dantzariaren atzetik jarraitzaile ugari joaten zaizkie, umeak zein helduak, eta denek parte hartzen dute modu aktiboan segizio horretan, Erraldoi eta Buruhandien konpainiaz gozatuz. Hori dela eta, Museoak jai-giroko izaera horretan parte hartu nahi du, eta, aldi berean, pertsonaia horien historia erakutsi nahi dio publikoari, lehen aldiz noiz aipatzen diren adieraziz eta joandako mendeotan izan dituzten aldaketen berri emanez. Modu horretan, arlo ludikoa eta arlo historikoa marko berean elkartuko dira.

Museoan aurkezten dugun erakusketak Bilboko Udalaren jabetzakoak diren erraldioen bi belaunaldiak batzen ditu, hau da, 1980koa eta 1988koa; guztira, 24 figura dira. Erraldoiekin batera, 9 buruhandi daude ikusgai.

### **1980ko belaunaldiko Erraldioen zerrenda**

Don Terencio  
Baserritarrak  
Ingelesa eta Bilbotar neskatila  
Olagizona eta Zigarrogilea  
Marinela eta Zamaketaria  
Zumalakarregi

### **1988ko belaunaldiko Erraldioen zerrenda**

Don Terencio eta Doña Tomasa  
Baserritarrak  
Ingelesa eta Bilbotar neskatila  
Olagizona eta Zigarrogilea  
Marinela eta Zamaketaria  
Zumalakarregi eta Isabel II  
Pichichi eta Lina

## **Buruhandien zerrenda**

Erdi Aroko euskalduna

Erdi Aroko tontor burukoaz jantzitako euskal emakumea(2)

Mezalaguna(2)

Diakonoa

Don Celes

Athletic Klubeko lehoia

Baserritarra

Horiekin guztiekin batera, Euskal Museoak 1980ko Erraldoien 12 miniatura aurkezten ditu, denak ere bere bildumakoak. Miniatura horiek Fernando eta Esperanza Pallaresek egindakoak dira. Pieza hauen jantziak Maritere Villamorrek egin zituen, Euskal Museoak 1990ean egindako ikerketa historikoko lanaren ondorioz.

Aldi baterako erakusketa osatzeko, jaietako 84 argazki daude, antzinakoak zein modernoak. Argazkirik zaharrena XIX. mende amaierakoa da.

Erakusketa Hallean, aldi baterako erakusketetarako bi aretoetan eta Euskal Museoko Klaustroan ikusi ahal izango da.

Erakusketa izango da Euskal Museoan

**2012ko Uztailak10 – Irailak 30**

**Informazio gehiagorako: Euskal Museoa 94 415 54 23**

[www.euskal-museoa.org](http://www.euskal-museoa.org)

Bilbon, 2012ko uztailaren 6an